# 4. Irune Muguruza

# Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaria

# EUSKARA ETA DEMOGRAFIA JARDUNALDIA

**IRUNE MUGURUZ**
FAMILIA POLITIKAKO ETA ANIZTASUNEKO ZUZENDARI










## Zahartze aktiborako estrategia. 2015-2010

- ✓ Gizartea zahartzarora egokitzea
- ✓ Hobeto zahartzea
- ✓ Adiskidetasuna eta parte-hartzea ongizatearen gizartea erakitzen.

## Zaintzaile ez profesionalak babeseko Estrategia Soziosanitarioa

## Jaiotza-tasa EB-28an (1.000 biztanleko). 2007-2017

| | 2007 | 2012 | 2017 |
|---|---|---|---|
| **EU 28** | **10,7** | **10,4** | **9,9** |
| **Euskal AE** | **9,6** | **9,4** | **7,8** |
| Irlanda | 16,2 | 15,6 | 12,9 |
| Suedia | 11,7 | 11,9 | 11,5 |
| Frantzia | 12,8 | 12,6 | 11,4 |
| Erresuma Batua | 12,6 | 12,8 | 11,4 |
| Txekiar errepublika | 11,1 | 10,3 | 10,8 |
| Zipre | 11,2 | 11,8 | 10,7 |
| Eslovakia | 10,1 | 10,3 | 10,7 |
| Letonia | 10,9 | 9,8 | 10,7 |
| Dinamarka | 11,7 | 10,4 | 10,6 |
| Polonia | 10,2 | 10,1 | 10,6 |
| Belgika | 11,7 | 11,5 | 10,5 |
| Estonia | 11,8 | 10,6 | 10,5 |
| Luxenburgo | 11,4 | 11,3 | 10,4 |
| Lituania | 9,3 | 10,2 | 10,1 |
| Austria | 9,2 | 9,4 | 10 |
| Herbehereak | 11,1 | 10,5 | 9,9 |
| Eslovenia | 9,8 | 10,7 | 9,8 |
| Hungaria | 9,7 | 9,1 | 9,7 |
| Errumania | 10,3 | 10 | 9,7 |
| Alemania | 8,3 | 8,4 | 9,5 |
| Malta | 9,3 | 9,8 | 9,2 |
| Finlandia | 11,1 | 11 | 9,1 |
| Bulgaria | 10 | 9,5 | 9 |
| Kroazia | 9,7 | 9,8 | 8,9 |
| **Espainia** | **10,9** | **9,7** | **8,4** |
| Portugal | 9,7 | 8,5 | 8,4 |
| Grezia | 10,1 | 9,1 | 8,2 |
| Italia | 9,7 | 9 | 7,6 |

**Iturria: EUROSTAT (2018/12/03) eta Eustat**

## Familiei Laguntzeko III. Planaren Ebaluazio Txostenaren eta Euskadiko Haurtzaroan eta Familietan Inbertitzeko Estrategiaren Oinarri Dokumentuaren bataz besteko ondorioak

- ✓ Jaiotza-tasaren gainbehera.
- ✓ Gazteen ugalketa-nahiak eta -itxaropenak gauzatzeko zailtasunek.
- ✓ Gazteen emantzipaziorako eta bizitza autonomoko proiektuen eraikuntzarako zailtasunak.
- ✓ Lanaren eta familiaren kontziliaziorako zailtasunak.
- ✓ Genero-desberdintasunek eta seme-alaben hazkuntzan ardura partekaturako zailtasunak.
- ✓ Lana eta familia bateragarri egiteko hobe daitekeen prestazio-eredua.
- ✓ Familia-osaeraren dinamiken aldaketak eta familia-ereduen dibertsifikazioa

## Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna

Eusko Jaurlaritzak, 3 herrialdeetako Foru Aldundiek eta EUDELek sinatua.

- ✓ Zahartzeari eta jaiotza-tasa sustatzeko beharrari aurre egingo dieten politika sozial eta demografikoa garatzeko erronka aitortu.
- ✓ Familien garrantzia harreman humano eta gizarte-hezkuntzarako ardatz gisara onartu.
- ✓ Ardura familiarrak dituzten pertsonentzat eta familiak osatu nahi dituztenentzat erraztaile izango diren politiken alde egiteagatik.

Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna Familiei Laguntzeko Erakunde arteko 2018-2022 aldirako IV. Planean burutuko da.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren helburuak:

- ✓ Plana Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna epe labur eta ertainean gauzatzea.
- ✓ Bi elementutan zentratutako plana: familia ugalketarako oztopoak murrizketa eta desberdintasuna prebentzioa.
- ✓ Planak seme-alabak dituzten familiak ditu ardatz, eta seme-alabekin edo haurrekin zerikusi zuzenik ez duten beste familia-behar batzuk ere jorratzen ditu.
- ✓ Familia-aniztasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza onartu eta babestu.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren helburuak:

- ✓ Erantzunkidetasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- ✓ Kontziliazio erantzukiderako neurrien aldeko apustua.
- ✓ Unibertsaltasun progresiboa: familia guztiei arreta, premia handienak dituztenei eta laguntza handiagoa behar dutenei bereziki.
- ✓ Zuzeneko arretako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak uztartzen ditu.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

**5 ardatz:**

1.- Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorrera.

2.- Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatua.

3.- Familiei laguntzea.

4.- Haurren eta nerabeen ongizatea.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

**18 helburu estrategiko:**

Gazteen emantzipazioa eta familia berrien sorreran:
- ✓ Enplegua eskuratzea.
- ✓ Etxebizitza eskuratzea.

Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta seme-alabak zaintzeko ardura partekatuan:
- ✓ Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa.
- ✓ Gurasotasun positiboa eta atxikimendu seguruaren sustapena.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

Familiei laguntzea.
- ✓ Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoa eta haur-pobreziaren prebentzioa.
- ✓ Familia-aniztasuna eta belaunaldien arteko harremanak.
- ✓ Haurrentzako arreta.

Haurren eta nerabeen ongizatea.
- ✓ Detekzio eta arreta goiztiarra.
- ✓ Ohitura osasungarrien sustapena eta osasunerako eskubidea.
- ✓ Ekitatea hezkuntzan.
- ✓ Babesgabetasun- eta kalteberatasun-egoeren prebentzioa eta esku-hartzea.
- ✓ Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.

…

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

Haurren eta nerabeen ongizatea.

- ✓ Gazte-delinkuentziaren prebentzioa eta adingabe arau-hausleentzako arretaren hobekuntza.
- ✓ Haurren parte-hartzea eta haurren eskubideen sustapena.
- ✓ Komunitate-garapena.

Euskal Autonomia Erkidegoan familiaren eta haurtzaroaren arloko politiken lidergoa eta gobernantza sustatzea.

- ✓ Informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa.
- ✓ Lidergoa eta koordinazioa.
- ✓ Jakintzaren kudeaketa eta ebidentzian oinarritutako jardunbidea.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

Martxan jarritako ekintza nagusiak:

- ✓ Lehentasunezko etxebizitza-erreserba gazteentzat.
- ✓ -Gazteek merkatu pribatuan alokairuko etxebizitza eskura dezaten laguntzea, GAZTELAGUN programaren esparruan ematen den prestazio ekonomiko baten bidez.
- ✓ 18.000 euroko diru-sarrerak dituzten familientzako haur-eskolen doakotasuna.
- ✓ Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko aldizkako prestazio ekonomikoak hobetu egin dira, bigarren seme-alabentzako hirugarren urteko ordainketa bat eginez.

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

Demografia eta jaiotze-tasarekin lotutako bi ekimen berezi:

- ✓ Kontzilia 30
- ✓ Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko dekretu berria

## Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

### Kontzilia 30

1.- Enpresa-mundua bizitza pertsonala bateragarri egiteak eskaintzen dituen aukerez sentsibilizatzea. Familiakoa eta lanekoa, kostu ekonomiko eskasagatik eta onura sozial handiagatik.

2.- Aholkularitza eta aintzatespen soziala eskaintzea kontziliazio erantzukiderako neurriak ezartzea erabakitzen duten enpresei.

3.- EAEko familiek beren familia- eta lan-bizitza bateratu ahal izatea eta Euskadik aurre egin behar dion erronka demografikoari aurre egitea erraztea.

4.- Eta Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egingo duen familia-, lan- eta gizarte-antolaketa erantzukidea bultzatzea.

# Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako

## Kontzilia 30

- ✓ 30 empresa
- ✓ 4130 langile

Kontziliazio-neurriek plantillaren beharrak, enpresarenak berarenak eta hura osatzen duten lanpostu-mota desberdinenak kontuan hartuta planteatzen direnean funtzionatzen dute

**FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI BURUZKO DEKRETU BERRIA**





**FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI BURUZKO DEKRETU BERRIA**

SARTUTAKO BERRIKUNTZAK:

1. **GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.**
2. **HOBEKUNTZAK KONTZILIAZIORAKO GAUR EGUN DAUDEN LAGUNTZA-LERROETAN**



**GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.**

Haurdun egon ez den gurasoari jaioberria zaintzeko denbora gehiago emateak 2 XEDE ditu:

**1.- ADINGABEA GEHIAGO BABESTEA:** Gurasoen eta haurraren arteko lotura sendoa ezartzen bada, lotura horiei haurtzaroan eta nerabezaroan eutsiko zaie, eta babes-eragileak izango dira, etorkizuneko arrisku-egoeren aurrean.

**LOTURA SENDOAGOAK = ETORKIZUNEKO NERABE SEGURUAGOAK ETA AUTONOMOAGOAK**

**2.- ENPLEGUA: EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN ERREALA** lortzea

Emakumeak ez dira baztertuak izango etorkizuneko amatasunagatik, enplegu batera jo nahi dutenean.

Zenbait herrialdetan, Suedian edo Finlandian esaterako, baimenen parekatzeak emaitza horiek lortu ditu gizarte gisa.

## GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.

**Nori zuzentzen zaio? EREMU PRIBATUKO** langileei

- **Besteren konturako langileei**
- **Langile autonomoei:** langile bat kontratatu beharko dute.
- **Langile bazkide kooperatibistei**



## GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.

**Nori zuzentzen zaio? EREMU PRIBATUKO** langileei

- **Besteren konturako langileei**
- **Langile autonomoei:** langile bat kontratatu beharko dute.
- **Langile bazkide kooperatibistei**

Laguntzaren zenbatekoa, eszedentzia hasi aurreko hileko Gizarte Segurantzarekiko kotizazio oinarria.*

- Langile bazkide kooperatibistek Gizarte Segurantza eta kooperatiba arteko sistema batean kotizatzen badute, kotizazio-oinarri bien batura eszedentia hasi aurreko hilean.

Eszedentziak iraun bitartean, kotizarioaren hobaria Gizarte Segurantzak egiten du.



## GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.

**Zein da helburua?** Guraso biek 16 aste izatea, semea edo alaba zaintzeko, haren bizitzako lehen urtean.

Hori dela eta, Gizarte Segurantzak ematen duen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko baimena diruz lagundutako eszedentzia batekin osatzen da.

**GIZARTE SEGURANTZAREN BAIMENA + ESZEDENTZIA = 16 ASTE**

**DESGAITASUNA DUEN SEMEAREN EDO ALABAREN KASUAN: 17 ASTE**

**GURASO BAKARREKO FAMILIAK: 24 ASTE**



## GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.

**Laguntza jasotzeko baldintzak:**

- Euskal Autonomia Erkidegoa bizileku izatea eta bertako erroldaren antzinatasuna urtebetekoa izatea, edo elkarren segidako 5 urtekoa izatea azken 10 urteotan.
- Gainera, eskatzaileak semearekin edo alabarekin egon beharko du erroldatuta.
- Eskatzaileak jaiotzagatiko edo zaintzagatiko Gizarte Segurantzaren laguntzako prestazioa agortu behar izan du.
- Guraso ez-eskatzaileak (baldin badago) bere kontratuari dagokion lanaldi osoan egon beharko du bere lan-jardueran hasita (kontratu partziala bada, %50ekoa edo gehiagokoa izan beharko du).
- Semeak edo alabak ezingo du haur-hezkuntzako zentro batean matrikulatuta egon.

**GURASOEK JAIOTZAGATIK ETA ZAINTZAGATIK DITUZTEN BAIMENAK**

**PAREKATZEKO ESZEDENTZIARAKO LAGUNTZEN LERRO BERRIA.**

1. adibidea: 2019ko abenduaren 1ean jaiotako alaba

Guraso biko familia: gurasoek alaba lehen 30 asteetan zehar zaindu dezakete (7 hil eta erdi, gutxi gorabehera)

Haurdun dagoen gurasoarentzako Gizarte Segurantzaren baimena: 16 aste

Haurdun ez dagoen gurasoarentzako Gizarte Segurantzaren baimena: 8 aste

lehen 2 asteak derrigorrean hartu behar dituzte bi gurasoek

14 aste haurdun dagoen gurasoa

6 aste haurdun ez dagoen gurasoarentzako Gizarte Segurantzaren baimena

8 aste Eusko Jaurlaritzaren eszedentzia parekatzailea



**FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI BURUZKO DEKRETU BERRIA**

AURREKO LAGUNTZA LERROAK HOBETZEA

- Semeak edo alabak zaintzeko lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak:
  - EGUNGO LAGUNTZA HOBETUAK
- Mendetasun-egoeran dauden edo muturreko osasun-larrialdiko egoeran dauden familiartekoak zaintzeko lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak.
  - EGUNGO LAGUNTZA HOBETUAK
- Semeak edo alabak zaintzeko edo mendetasun-egoeran dauden edo muturreko osasun larrialdiko egoeran dauden familiartekoak zaintzeko lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileak ordezkatzeko laguntzak. LANBIDEK KUDEATUTAKO LAGUNTZA
- Seme edo alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.



**FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI BURUZKO DEKRETU BERRIA**

1.- Laguntzen zenbateko ekonomikoa: % 30eko igoera:

- Guraso bakarreko familiak
- Familia ugariak
- Mendekotasun-egoera larrian dagoen, mendekotasun handia duen edo %50eko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsonaren bat duten familia-unitateak
- Genero-indarkeriaren biktima den pertsonaren bat duten familia-unitateak.

2.- Eskatzailea gizona denean, areagotu egiten dira laguntzak jasotzeko gehienezko denborak.



betiON

